

# gurea geroa

Emaitzen txostena.  
Zaintza  
2026

Zuzendaritza  
taldea. Laboral  
Kutxa Osoigo

**g6**  
Zaintza.



*gurea* geroa

- 05** Proiektua
- 06** Fitxa teknikoa
- 09** Nola bizi gara?
- 19** Etxeko lanen banaketa
- 29** Zer esan nahi du zaintzeak?
- 38** Zaintzearen kostu ikusezina
- 58** Genero desberdintasuna zaintza lanetan
- 65** Pribatutik kolektibora: zaintza birpentsatzen
- 68** Gizarte-balio handia, aitortza txikia
- 74** Baliabideak eta laguntza zuzena lehenesten ditugu hobeto zaintzeko
- 83** Zaintza duintzea, eskubide kontua
- 89** Ondorioak
- 94** Titularrak
- 101** Proposamenak

# *gurea geroa*

*Gurea Geroa elkarrizketa eta parte-hartze espazio gisa sortu zen, gazteen ahotsa biltzeko helburuz, haien orainaldian eta etorkizunean eragina duten politika publikoei buruz eztabaidatzeko, proposatzeko eta hausnartzeko, gazteen, erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko zubi gisa jardunez.*

*Esparru honen barruan, parte-hartze prozesu bat garatu da EAEn zaintzaren pertzepzioari eta errealitateari buruz.*

*Ikerketa premisa argi batetik abiatzen da: zaintza ongizate kolektiboaren zutabeetako bat da, baina haren banaketa oso desberdina da oraindik eta batez ere emakumeen gain erortzen jarraitzen du.*

**Metodoa:** online inkesta, edozein gailutatik eskuragarri.

**Laginketa:** ez-probabilistikoa, webgune eta sare sozialen bidezko hedapena (asmozko laginketa) eta erabiltzaileen arteko gomendioak uztartuz (elur-bola laginketa).

**Laginaren tamaina:** 2.281 gaztek parte hartu zuten; osatu gabeko galdetegiak kendu ondoren, baliozko 858 erantzun eskuratu ziren. Ez zen haztapenik aplikatu.

**Generoa:** Lagina oso feminizatuta dago: erantzuleen % 84,4k emakume bezala identifikatu ziren (724), % 9,9k gizon bezala (85), % 4,4k nahiago izan zuten ez erantzun (38), % 0,8ak ez-bitar bezala identifikatu ziren (7) eta % 0,5k "beste batzuk" aukeratu zuten (4). Banaketa hau ez da kasualitatea; emakumeek zaintzari buruzko inkesta batean parte hartzeko daukaten prestutasun handiagoa bera adierazle bat da errealitate honen inguruko inplikazio, kontzientziazio eta, oso ziurrenik, errealitate honen gaineko erantzukizuna onartzeko duten ardurarena.

## LAGINAREN TAMAINA




## GENEROA



**Adina:** Ordezkatutako adin-taldeak hauek dira: 25 eta 29 urte bitartekoak (% 16,4), 16 eta 24 urte bitartekoak (% 12,2), 30 eta 34 urte bitartekoak (% 36,7) eta 35 urte eta gehiagokoak (% 34,6). Hasieran galdetegia gazteei (16-30 urte) soilik zuzenduta bazegoen ere, parte-hartzea zabaldu egin zen landa-lanean, adin-talde nagusien interes-maila handia zela eta. Horri esker, gazteen ikuspuntuak heldu gazteenekin alderatu daitezke, beti ere txostenaren arreta nagusia gazteengan mantenduz. Gainera, ulertzen dugu heldu gazteen artean interes handiago honek zaintza-erantzukizunekiko esposizio handiagoa islatzen duela.



**Hezkuntza maila:** Inkestatutako pertsonen hezkuntza maila altua dute: % 32,5ek unibertsitateko gradua dute, % 28,9k masterra, % 18,5ek lanbide heziketa, % 9,4k batxilergoa, % 5,4k derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatuta eta % 3,3k doktoretza.

## ADINA



## IKASKETA MAILA



**GIZARTE KLASE SUBJEKTIBOA****LAN-EGOERA**

**Gizarte-klase subjektiboa:** Gehiengoak erdi-mailako klase gisa identifikatzen du bere burua (% 48,6), ondoren erdi-mailako klase baxua gisa (% 28,3) eta azkenik goi-mailako klase ertain gisa (% 13,2). Beheko klasekoek % 5,4 ordezkatzeko dute eta klase altukoek % 1. Beraz, erdi-mailako klaseak eta erdi-mailako klase baxuak laginaren % 77 osatzen dute, eta banaketa hori bat dator neurri handi batean CISEk eta INEk biztanleria orokorrerako emandako datuekin. Katetoria bakoitzaren pisua orekatzeko eta lagin oso txikien banaketak saihesteko, goi-mailako klase ertaina eta goi-mailako klasea eta erdi-mailako klasea eta erdi-mailako klase baxua taldekatu ditugu.

**Lan-egoera:** Inkestatutako biztanleriaren erdia baino gehiago lanean ari da (% 55), % 16,1k ikasketak eta lana uztartzen ditu, % 14,2k ez du ez lan egiten ez ikasten, eta % 12k ikasten du eskusiboki.



Nola bizi gara?

Gurea Geroa

[gureageroa.eus](http://gureageroa.eus)

2026ko maiatza




## Nola bizi gara?

Inkestatutako gazteen % 91,7 beste pertsona batzuekin bizi dira, eta hori bat dator INEtik eratorritako datuekin, ehuneko hori % 88,9an kokatu zutenak 2024an.

### Beste pertsonekin bizi al zara zure etxean?


(Oinarria. Lagina, guztia. 858)



Besteekin bizi diren inkestatutako pertsonak batez ere bikotekideekin bizi dira, kasuen % 60,4an, seme-alabekin % 36,6an eta, neurri txikiagoan, gurasoekin, kasuen % 23,8an.



Inkestatutako biztanleria, oro har, EAEko biztanleria bezala, batez ere familiarterko bizikidetzaren ereduak dute. **Gutxiengoa da familiarterkoak ez diren kideekin bizitzen dena (% 3,5)**, eta horrek berresten du familiarren funtsezko eginkizuna eguneroko bitzita antolatze eta zaintzeko orduan, eta azpimarratzen du inkestak familiar-erantzukizunak dituzten pertsonengan jartzen duen arreta berezia.




Generoen arteko desberdintasunak argiak dira. **Inkestatutako emakumeek familiarterkoak diren bizikidetzaren ereduak definitu dituzte.** % 65 bikotekideekin bizi dira eta % 40 seme-alabekin; zifra horiek inkestatutako gizonenak baino ia bikoitza dira, eta hauek, aldiz, kasuen % 40an gurasoekin bizi dira.

Datu hauek erakusten dute **emakumeek zaintza zuzenagoa eskatzen duten familiarterduekin aurrez aurre jartzen direla gehiago**; beraz, inkesta honi erantzuteko joera handiagoa izan dezakete, neurri handi batean zaintza-errealitate honekiko sentikorra goiak direlako eta haiengan eragin handiagoa duelako.

## Zaintza-lanen feminizazio iraunkorra

Zaintza biztanleriaren gehiengo handi baten eta egungo laginaren bizi-espereziaren parte da. Elkarrizketatutako EAEko pertsonen % 66,7k adierazi dute gaur egun zaintza-rola betetzen dutela, eta % 20,3k ez dutela betetzen, eta horrek baieztatzen du gizarte-entzute prozesu honetan errealitate honek eragin handia duen talde batean jartzen dugula arreta.



**Zure bizitzako une honetan, esango zenuke beste pertsona bat edo gehiago zaintzeko rola hartzen duzula?**

(Oinarria. Lagina, guztia. 858)

Datuek erakusten dute zaintza ez dela marjinala edo salbuespena, **eguneroko bizitzan oso hedatuta dagoen praktika** baizik. Bere prebalentzia handiak adierazten du zaintza-beharrak esperientzia estruktural eta partekatua direla, eta denbora kudeaketan, ongizatean eta lan-bizitza orekan eragina dutela.

**Inkestatutako emakumeen % 70ek zaintza-lanak egiten dituztela diote, gizonen % 40 baino gutxiagorekin alderatuta.** Alde hori ez da kasualitatea ezta marjinala ere; 31 puntuko aldea dago EAEko gizonen eta emakumeen artean, eta nekez azaldu daiteke kasualitate hutsez.

## Zaintzaile rola hartzen duzu?


(Oinarria. Lagina, guztia. 858)  
(BAI erantzuten dutenen %a)



Datu hauek ondorio sendo batera garamatza: **zaintza-rola gizonak baino bi aldiz emakume gehiagok egiten dute**, edo beste era batera esanda, zaintza-ardura feminizatua izaten jarraitzen du, non emakumeek rol-nagusia betetzen jarraitzen duten beren familia-inguruneen zaintzan eta sosteguan.

## Nork hartzen ditu nagusiki etxeko lanak bere gain?


(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (%a generoaren eta gizarte-klasearen arabera)



## Nork hartzen ditu bere gain, batez ere, etxeko lanak?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (% generoaren eta hezkuntza-mailaren arabera)


Zaintza-lanaren feminizazioa ez da soilik aukera indibidualen kontua, baizik eta zaintza-lanak emakumeen rolaekin lotzen dituen sozializazio bati lotutako egitura-eredu bat. Erantzukizun partekatua sustatzen duten erakunde eta lan-mekanismoak gabe, eredu hori belaunaldiz belaunaldi erreproduzitzen da, hezkuntza-maila edo gizarte-klasea edozein dela ere.



**Zaintzan parte hartzea proportzionalki eta zuzenean handitzen da adinarekin,** eta nabarmen handitzen da pertsonak zahartzen diren heinean eta familia-erantzukizun gehiago hartzen dituzten heinean.

## Zure bizitzako une honetan, zaintza-rol bat hartzen duzula esango zenuke?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (Baietz erantzuten dutenen %a)




## Zaintza etxean zentratzen da eta batez ere emakumeen esku dago.

Inkestatutako pertsonen %70k ohiko moduan hartzen dute bere gain etxeko kudeaketa eta antolaketa (tramiteak, mediku-hitzorduek, etab.). %40k hurbileko adineko pertsonen zaintzaz arduratzen dira, eta beste %40k hurbileko adingabeenaz. Is %20k desgaitasunen bat duten pertsonen zaintzaz arduratzen dira.

### Zaintza-jarduera hauetakoren bat egiten al duzu?

Oinarria. Lagina, guztia. 858)



Emaitza garrantzitsu bat da inkestatutakoen % 16k bakarrik adierazi zutela ez zutela erantzukizun horietako bat ere hartu, batez ere gizonek. Zehazki, **inkestatutako gizonen % 43,5ek esan zuten ez zutela erantzukizun horietako bat ere hartu**, emakumeen % 13,3rekin alderatuta —emakumeen hiru aldiz gizon gehiagok baino

—.


## Zaintza-jarduera hauetakoren bat egiten al duzu?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (Talde bakoitzaren %)


● Emakumeak

● Gizonak


Etxeko lanak




Adineko pertsonak




Adingabeak



Ezgaitasuna



Bat ere ez



### Zeregin hauen banaketak genero-desberdintasun argia erakusten du.

Emakumeek askoz maizago hartzen dituzte zaintza-erantzukizunak, batez ere etxeko esparruan. Inkestatutako EAEko emakumeen % 73,5ek etxeko lanak egiten dituzte eta % 42,5ek haurren zaintza. Aldiz, EAEko gizonen % 41ek baino ez dute diote etxeko lanak egiten dituztela eta % 17k haurren zaintza.

Adineko pertsonen zaintzak generoen araberako banaketa orekatuagoa erakusten du, nahiz eta alde nabarmen bat oraindik ere badagoen: EAEko emakumeen % 41ek hartzen dute bere gain, gizonen % 27ren aldean.


EAEko biztanleen artean zertxobait gehiago agertzen den zaintza mota bakarra desgaitasun mailaren bat duen pertsona bat zaintzea da. EAEko gizonen % 23k diote zaintza hori ematen dutela, eta EAEko emakumeen % 18k, berriz.

Patroi honek berresten du **zaintza-lanak emakumeen gain desproporzionalki erortzen jarraitzen duela**, are gehiago kontuan hartuta gizonen % 43k diotela ez direla zeregin horietako bat ere zaintzen.

## Zaintza-jarduera hauetakoren bat egiten al duzu?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858)  
(Talde bakoitzaren ehunekoa / Erantzun anizkoitza)

Adina handitzen den heinean, egiten diren jardueren kopurua handitzen da, baina baita ematen den zaintza mota.




Etxeko lanak eta kudeaketa gero eta garrantzitsuagoak dira pertsonak urteak betetzen doazten heinean; gazteenen % 20k bakarrik egiten dituzte, 30 urte edo gehiagokoen % 78arekin alderatuta.

Zainketa-lanak gora egiten du adinarekin: 35 urte edo gehiagoko pertsonen artean, % 44k zaintzen ditu adingabeak eta % 51ek adinekoak, gazteen artean % 24 eta % 26ren aldean, familia-eredu finkatuagoak eta guraso zaharragoak islatuz.

**Zaintzaileen kopurua**, sumatu daiteken bezala, adin-talde nagusietan kontzentratzen da, eta gazteagoetatik modu erlatiboan urruntzen da.

## Esango zenuke beste pertsona bat edo gehiagorekiko zaintza-rol/jarduera bat hartzen duzula?

(Oinarria, lagina, guztia. 858) (Talde bakoitzaren ehunekoa / Erantzun ugarikoa)



Zaintzailearen profila 30 urtetik aurrera nola igotzen den ikusten dugu, 30-34 urte bitarteko euskotarren % 58,5ekin eta 35 urte edo gehiagokoen % 63,4ra iritsiz.

Agerikoa dirudienez, zaintza-erantzukizunak bere gain hartzeari urrutien daudenak gazteenak dira, eta batez ere 25 urtetik beherako biztanleria.

Zaintzak batez ere jada lan, familia eta ekonomia zama handiagoak dituzten pertsoneri eragiten die, 25 urtetik beherako gazteak izanik gutxien inplikaturik daudenak, eta horrek erakusten du ez dela esperientzia transbersala, bizi-zikloko une zehatzetan kontzentratzen dela baizik.



---

## Etxeko lanen banaketa

---

### Etxeko lanaren banaketan etengabeko desberdintasuna.

Etxeko lanak ere ez dira modu orekatuan banatzen. **Inkestatutakoen ia erdiak, % 48k, dena egiten dute etxean, etxeko lanak gutxi gorabehera modu berdintsuan banatzen dituztela dioten % 30ekin alderatuta.**

### Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858)

Emaitza honek adierazten du nagusi den eredia etxeko lanaren esleipen indibidual eta ez-partekatua dela oraindik ere.

Datu hauek islatzen dute, erantzukizun partekatuan aurrerapenak egin diren arren, **etxeko lanak egituraz desberdina den izaera mantentzen duela** eta etxe barruko rol bereizien inguruan antolatzen jarraitzen duela.




## Arrakala izugarria etxean.

Generoen arteko aldeak bereziki nabarmenak dira. **Emakumeen erdiak baino gehiagok, % 52k, etxeko lanak bakarrik egiten dituztela diote, gizonen % 14,1ekin alderatuta.**

## Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia 858) (talde bakoitzaren %)



Gizonen % 28k diote beste norbaitek egiten dituela etxeko lanak, eta % 20k ez dakite nork egiten dituen, inplikazio txikia adieraziz. Gizonen % 37k uste badu ere lanaren banaketa ekitatiboa dela, emakumeen % 29k bakarrik hautematen dute horrela, eta horrek erantzukizun partekatua erantzukizun pertzepzioan dauden desberdintasunak nabarmentzen ditu.


## Desberdintasunak areagotu egiten dira zaintzarekin.

Etxeko lanen ardura nagusia hartzen duten pertsonen % 91,6k zaintza-lanak ere hartzen dituzte, hau da, beste pertsona batzuen zaintza beren gain hartzen ez

duteren artean baino bederatz aldiz gehiago (% 8,4), eta horrek erakusten du zaintzak duen dimentsio metatu hori.

## Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (talde bakoitzaren %)



Alderantziz, etxeko lanak beste norbaitek egiten dituela dioten pertsonen erdiak baino gutxiagok, % 44k, zaintza-rola hartzen dute.

Datuek erakusten dutenez, zaintza-lanek erantzunkizun gehiago ez ezik, etxeko antolamendu desorekatuagoa eta pertsona bakar baten lan-kontzentrazio handiagoa ere eskatzen ditu.


### Adinaren eta bizi-zikloaren eragina.

Etxeko lanetan duten inplikazioa adinarekin handitzen da: 16-24 urte bitarteko gazteen % 14,3k bakarrik hartzen dituzte beren gain, eta 35 urtetik gorakoen

% 63,6k, emantzipazioarekin eta familia berriak osatzearekin batera.

## Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (talde bakoitzaren %)




Banaketa ekitatiboa ohikoagoa da gazteen artean (%39 16-24 urte bitartean) eta adinarekin gutxitzen da (%20 35 urtetik aurrera), eta horrek iradokitzen du erantzukizun partekatuko ereduak bizi-ziklo osoan zehar finkatzen diren eskema tradizionalagoekin batera bizi direla.

**Bikotekidearekin bizitzeak ez du esan nahi etxean berdintasun handiagoa dagoenik.**

**Bikotekidearekin bizi diren elkarrizketatutako gazteen % 60k etxeko lanak bakarrik egiten dituzte; norbaitekin bizi zaizkien ez du esan nahi lana partekatzea.** Aldiz, gurasoekin bizi direnen artean, eredu alderantzizkoa da: % 43k adierazten dute etxeko beste pertsona batek egiten dituela lanak, eta % 26k bakarrik diote eurek egiten dituztela.

## Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (azpitalde bakoitzaren %)




**Bikoteak ez ditu ardurak banatzen: alde bakarrean pilatzen dira.**

**Gurasoek ere ez: amari delegatzen diote.**

Bikotekidearekin bizi direnen artean, aldea bereziki nabarmena da: **emakumeen % 63k diote etxeko lanak egiten dituztela batez ere, gizonen % 24,1ekin alderatuta**, hau da, emakumeek gizonen baino ia hiru aldiz gehiagok.

## Zein esaldik deskribatzen du hobekien nola egiten diren etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (azpitalde bakoitzaren %)



Aldiz, gizonen erdiak baino gehiagok, %55,2k, banaketa bidezkoa dela uste dute, emakumeen %33,5ek bakarrik partekatzen duten pertzepzio hori, eta horrek banaketaren inguruko emakumeen esperientziaren eta gizonen pertzepzioaren arteko aldea argi erakusten du.

Elkarbizitza gurasoekin denean, zuzeneko parte-hartzea gutxitzen da eta etxeko lanak etxeko beste kide batzuei pasatzen zaizkie. Hala ere, desberdintasunak jarraitzen du: **alabek semeek baino erantzukizun gehiago hartzen dute, %28,8 %5,7rekin alderatuta, hau da, lau aldiz alaba gehiagok semeek baino.**



Zaintzaren banaketa desberdin hau dagoeneko erreproduzitzen ari da familia-esparruan, gazteak garenetik eta gurasoen etxean bizi garenetik.

## Seme-alabak izateak are kontzentrazio handiagoa suposatzen du zereginetan.

Inkestatutako pertsonen % 73,9k, zeinak etxean seme-alabekin bizi diren, etxeko lanak bakarrik egiten dituzte.

## Nola egiten dira etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (Etxean seme-alabekin vs. seme-alabarik gabe)



Seme-alabarik ez dutenen artean, zifra hori %33ra jaisten da, erdiak baino gutxiago, eta seme-alabak dituztenen artean, berriz, %23k baino ez dute banaketa bidezko bat hautematen, eta horrek erakusten du adingabeen presentziak ez duela erantzukizun partekatua handitzen eta zaintza modu desberdinean banatzen dela.

## Seme-alaben zaintzaren zama emakumeen gain erortzen da berriro ere.


Inkestatutako seme-alabak dituzten emakumeen artean, %75,4k etxeko lan gehienak bakarrik egiten dituzte. Inkestatutako seme-alabak dituzten gizonen artean, zifra hori % 46,7ra jaisten da.

Argigarriena banaketa ekitatiboaren eremuan gertatzen dena da: seme-alabak dituzten EAEko emakumeen %22,1ek baino ez dute adierazten bikotekidearekin zereginak gutxi gorabehera berdin banatzen dituztela, egoera berean dauden gizonen % 46,7arekin alderatuta.

**Berriz ere, generoaren arabera zereginen banaketaren pertzepzio desberdinaren eredia errepikatzen da,** gizonezko aiten ia erdiak uste duen arren banaketa ekitatiboa dela, lau amen hiruk diote zeregin horiek gehienbat bakarrik hartzen dituztela beren gain.

## Nola egiten dira etxeko lanak zure etxean?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (% generoaren eta bizikidetzaren arabera)



Haurrik gabe, desberdintasuna mantentzen da: emakumeen %37k egiten dituzte etxeko lanak bakarrik, gizonen %7,1ekin alderatuta, zeinek etxeko lanak berdin banatzen dituzten normalean (%35,7) edo beste pertsona bati eskuordetzen dizkioten, normalean bikotekideari (% 32,9).

**Erantzunkidetasuna ez da abiapuntua. Gehienez ere, negoziatzen den lorpen gogorra da. Eta haurrak iristen direnean galtzen den bat dirudi.**

3

---

## Zer esan nahi du zaintzeak?

---

Zaintzari buruz dugun irudi soziala oraindik ere oso lotuta dago ugalketa-zereginekin; zaintza oraindik ere ulertzen da gehiago besteentzat gauzak egitea bezala, besteei laguntzea baino.

### **Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jardueri ematen zaie garrantzi gehien?**

(Hautatzen dutenen ehunekoa - gehienez 3 erantzun)

Adinekoen edo adingabeekoen arreta **%49,1**

Etxeko lanak **%45,8**

Osasunaren monitorizazioa **%39,9**

Mantentze ekonomikoa **%34,6**

Besteen ongizatea **%27,7**

Laguntza emozionala **%16,8**

Zaintza beharrak **%15,5**


Zaintza-zeregin ikusgarriek jasotzen dute aintzatespen sozial handiena: **adintxikikoak edo adinekoak zaintzea (%49)**, etxeko lanak egitea (%46) eta gertuko pertsonen osasuna zaintzea (%40). **Etxearen mantenu ekonomikoa ere zaintzat hartzen da, inkestatuen % 35ek aipatuta.**

Zaintzaren dimentsio ikusezinenak gizarte-aitortza txikiagoa jasotzen dute: **%28k garrantzia hautematen dute besteen ongizateaz arduratzean**, %17k entzutean eta laguntza emozionala ematean, eta **%15ek zaintzailearen beharrei erantzutean.**

Laguntza emozionalaren zereginiek aintzatespen sozial gutxiago jasotzen dute praktiko edo materialek baino, zaintzak eskatzen duenarekiko ikuspegi mugatua erakutsiz.

## Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jardueri ematen zaie garrantzi gehien?


(Hautatzen dutenen ehunekoa - gehienez 2 erantzun)



Zaintzaren pertzepzioan dagoen aldea berresten da gutxien baloratzen dena galdetzean: %46k uste du laguntza emozionala ez dela garrantzitsutzat jotzen eta %37k adierazten dute zaintzailearen beharrei arreta ematea ere ez dela baloratzen.

## Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jarduerari ematen zaie garrantzi gehien?

(Hautatzen duenaren %)




## Zaintzen dutenek zaintza modu ezberdinean ikusten dute.

Gizarteak zaintzan garrantzitsuentzat jotzen dituen zereginen sailkapen hori ia berdin mantentzen da pertsonak zaintza-lanak egiten dituen ala ez alde batera utzita.

Baliokidetasun erlatibo horretaz gain, bi taldeen erantzunek kolektiboen arteko proiektio desberdin bat agerian uzten dute.

## Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jardueri ematen zaie garrantzi gehien?

(Gehienez 3 erantzun)



Elkarrizketatutako zaintzaileak ez direnek uste dute gizarteak lehentasuna ematen diola **hurbilekoen osasunari eta beharrei arreta jartzeari** (%46,6), zaintzaileen %37,9arekin alderatuta. Era berean, uste dute zaintzailearen beharrei arreta emateari garrantzi handiagoa ematen zaiola (%21,8, zaintzaileen %12,8arekin alderatuta).

Zaintzen ez dutenek urrutitik hautematen dute arreta, batez ere osasunaren jarraipenarekin eta zuzeneko arretarekin lotuz, hau da, dimentsio ikusgarrien eta ezagunenekin.

**Zaintzaile-lana hartzen ari diren elkarrizketatuek, berriz, uste dute besteen ongizatea zaintzeari garrantzi handiagoa ematen zaiola;** elkarrizketatuen %29k hori adierazten dute, zaintzaile ez direnen %24aren aldean.


**Behin eta berriz, datu hauek adierazten dute zaintzaileek jarduera/betebehar/zeregin hau dimentsio erlazionalago eta egunerokoago batekin ulertzen dutela,** eta hori ziurrenik sendoago estimatzen dela praktikatzen denean.

## Gizonek ez dute emakumeek bezala zaintza hautematen.

Inkestatutako EAEko emakumeen erdiek zaintza lanaren irudia adineko edo adingabeko pertsonak zaintzarekin (%51,7) eta etxeko lanak egitearekin (%48,2) lotu zuten. Gizonezkoen kasuan, ehuneko hori % 30 ingurukoa da.

## Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jarduerari ematen zaie garrantzi gehien?

(Hautatzen dutenen ehunekoak) (Gehienez 3 erantzun)



Emakumeen sentikortasun handiagoak banaketa desberdina eta zaintzarekiko kontzientzia handiagoa islatzen du: eguneroko zereginekin eta zaintza zuzenarekin lotzen dute, eta gizonak, berriz, noizbehinkako laguntzarekin edo osasunaren monitorizazioarekin.

**Gazteek zaintza laguntza emozional gisa ulertzen dute.**

16 eta 24 urte bitarteko gazteek sentikortasun handiagoa erakusten dute zaintza emozionalarekiko, eta badirudi alderdi horiei garrantzi handiagoa ematen dietela zaintzaren irudi soziala karakterizatzerakoan.

%33k laguntza emozionala adierazi dute zaintzan faktore garrantzitsu gisa, batez bestekoaren bikoitza (%16,8), eta besteen ongizatea ere lehenesten dute, gazteenen %30,5ek adierazi baitute, %27,7ko batez bestekoaren aldean.

Gazteen profilen artean, 30 urtetik beherakoen artean, etxea ekonomikoki mantentzearen rola ere bereziki aipagarria da, %43k adierazi baitu, inkestatutako pertsonen batez bestekoa baino 10 puntu gehiago.

## Zaintzari buruz hitz egiten dugunean, zein jardueri ematen zaie garrantzi gehien?

(Hautatzen duenaren %) (★ = errenkada-batez bestekoaren +8 pp)

Adinekoei edo adingabekoei arreta ematea	%33,3	%39,6	%52,7	%50,5	Guztira %49,1
Etxeko lanak	%39	%54,6 ★	%54 ★	%35,4	Guztira %45,8
Osasunaren monitorizazioa	%40	%39	%39,4	%40,7	Guztira %39,9
Mantentze ekonomikoa	%42,9	%43,3	%34,9	%27,3	Guztira %34,6
Besteen ongizatea	%30,05	%27,7	%27,3	%27,3	Guztira %27,7
Laguntza emozionala	%33,3 ★	%12,1	%11,1	%19,2	Guztira %16,8
Zaintza beharrak	%19	%19,1	%11,4	%16,8	Guztira %15,5
	<b>16-24</b>	<b>25-29</b>	<b>30-34</b>	<b>+35</b>	

Helduarorako trantsizioan, kontrako eredia nagusitzen da: 25 eta 34 urte bitartean, etxeko lanek hautemandako garrantziaren **%54,2** hartzen dute, eta adinekoen eta adingabekoen zaintzak **%51,8**.

Datu hauek agerian uzten dute **zaintzan sozialki zer garrantzitsutzat baloratzen denaren pertzepzioa, neurri handi batean, norberaren bizipenetik eraikitzen dela.**



# Zaintzearen kostu ikusezina

Gurea Geroa

[gureageroa.eus](http://gureageroa.eus)

2026ko maiatza

---

# 4

---

## Zaintzaren kostu ikusezina


---

### Zaintzeak norberaren denbora murrizten duenean.

Datuek erakusten dute zaintzak kostu pertsonal handia duela: zaintzaileen %61ek haien atsedena denbora asko edo nabarmen murriztu dutela diote, eta %55,7k haien aisialdi denbora murriztu dutela. Gainera, ongizate pertsonalean (%51) eta hezkuntzan (%42) eragina du, eta horrek eragin zuzena du haien bizi-kalitatean eta garapen pertsonalean.

### Uste duzu zaintza-erantzukizunek mugatzen dutela...-ri eskaini diezaiokezun denbora?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Asko edo nahiko asko erantzuten dutenen ehunekoa)




Eragin desberdinen aipamen kopuruak —erantzule bakoitzeko bi aipamen baino gehiago— erakusten du zaintzaren zama ez dela alderdi isolatuetan agertzen, baizik eta **dena batera pilatzen dela**. Zaintzak bizitzaren dimentsio bat mugatzen duenean, askotan besteak behera eramaten ditu.

## Zaintzak ez du denbora bakarrik kentzen: dena kentzen du

Bere atsedena kaltetuta ikusten duten pertsonak aisialdiko denbora eta ongizate pertsonala ere gutxitzen dituzte. Muga hauek espero baino askoz maizago gertatzen dira elkarrekin, eta horrek adierazten du **zaintzak erreakzio-kate bat sortzen duela**: atsedena gutxiagok, aisialdi gutxiago, ongizate eskasagoa eta denbora pertsonal gutxiago izatea dakar du.

## Zaintza karga metatuaren sistema gisa

(Muga bakoitza jakinarazten duen ehunekoa - lerroaren lodiera = loturaren indarra,  $p < 0,05$  bakarrik) (Zaintza lanak egiten dituzten pertsonen oinarria 645)



Burbuilaren tamaina = jakinarazten duten pertsonen ehunekoa

Emaitza ez da behin-behineko sakrifizio bat, **espazio pertsonalaren murrizketa orokorra** baizik. Zaintzak denbora guztia kontsumitzen du azkenean, eta aldi berean atsedena, gozamina eta norbere burua zaintzea murrizten ditu.

Zaintza laguntza nahikorik gabe ematen denean, **ez da bizitza pertsonalaren zati bat sakrifikatzen bakarrik, ongizate-marjina osoa murrizten da.**


**Zaintzaren zama handiagoa da emakumeen gain: prestakuntza gutxiago eta ongizate okerragoa.**

**Emakumeek etengabe eragin-maila handiagoak salatzen dituzte, eta horrek zaintza-zama intentsitate handiagoa eta desberdinagoa erakusten du.**

Arrakala handitzen da batez ere ongizate pertsonalean; emakume zaintzaileen %53,9k eragin esanguratsua dutela adierazten dute, gizonen %30,2rekin alderatuta, eta horrek erakusten du higadura emozionala eta pertsonala askoz nabarmenagoa jasaten dutela erakutsiz.

**Zaintza jarduerak asko, nahiko, pixka bat edo batere ez mugatzen zaituztela uste duzu?**

(Nahiko edo asko atsedena hartzen duen ehunekoa) (Zaintza jarduera duten pertsonen oinarria 645)




Zaintzak formakuntzan duen eragina ere desberdintasun nabarmena erakusten du generoen arabera. Zaintza lanetan diharduten emakumeen %44k denbora gutxiago dute prestakuntzarako, gizonen %30,2rekin alderatuta, eta horrek ziurrenik haien garapen profesionalerako aukeren muga handiagoa adierazten du.

## Kontziliazioa, gehiengoaren eskaera

Elkarrizketatutako zaintzaileen % 86k, hau da, **10etik ia 9k, zaintzaren eta bizitzaren arteko oreka hobea nahiago lukete, eta hamarretik batek bakarrik uste du bere egungo egoera asegarria dela, zehazki % 12,7k.**

## Zaintza-denbora eta norbere zaintza-denbora hobeto orekatu nahiko zenuke?


(645 zaintza-jarduera duten pertsonen oinarria)



Emaitza honek **eguneroko denboraren antolaketan tentsioaren pertzepzio zabaldua islatzen du eta zaintzeak dakarren kostu pertsonala azpimarratzen du.**

## Zaintza-denbora eta norbere zaintza-denbora hobeto orekatu nahiko zenuke?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) («Bai, asko» erantzuten dutenen ehunekoa)



Lan-bizitza oreka handiagoa izateko behar hori askoz neurri handiagoan adierazten dute emakumeek, inkestatutako emakume zaintzaileen %61ek, gizonetako baino (%41,9), eta horrek erakusten du, askoz ugariagoak izateaz gain, zeregin horiek eguneroko bizitzan duten eragina askoz handiagoa dela.

Zama handiagoa hartzen dute eta bizitza pertsonala orekatzeko tarte gutxiago dute.

## Zaintzaren zama ikusezina: etengabeko kezka


## Erantzukizunaren pisu emozionala.

Zaintzak zama emozional handia dakar: 10 zaintzailetik 7k kezkatzen dira zaintzen ari diren pertsona nork zainduko duen haiek faltatzekotan.

Dimentsio honek zaintza betebeharrak iraunkorrak bezala ulertzen duen ideia indartzen du, emandako denbora eraginkorra gainditzeko duena eta zaintzen dutenen ongizate pertsonala baldintzatzen duena.

## Norbait zaintzeko gai ez zarenean, nork zainduko duen kezkatzen zara?

(645 zaintza-jarduera duten pertsonen oinarria)




**Zaintzaile-lana hartzen duten pertsonen % 72,8k kezkatzen dira nork zainduko dituen haien orde;** zaintzaileen % 40rentzat kezka hori etengabekoa eta baldintzarik gabea da, eta % 32,2rentzat egoeraren edo zaindu behar duten pertsonaren arabera da.

% 11,5ek bakarrik diote ez daudela kezkatuta. % 6,2k diote egoerak ez diela eragiten edo ez dutela erantzun nahi, eta % 1,4k ez dute iritzi argirik.

Zaintzaren ardura ez da desagertzen distantziarekin. Datu hauek zaintza etengabeko konpromiso gisa indartzen dute, denbora errealean igarotakoa gainditzen duena eta norberaren ongizatean eragina duena fisikoki bertan ez egon arren.

## Norbait zaintzeko gai ez zarenean, kezkatzen zaitu nork egingo duen?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Talde bakoitzaren %)



Emakume zaintzaileen %42,6k adierazi dute etengabe kezkatzen direla nork zainduko duen haien faltan. Gizonezkoen kasuan, zifra bera % 25,6ra jaisten da: ia erdia.

Zaintzaren jarraitutasunaren inguruko kezkek —nork hartuko du bere gain, nola, norbait egongo den ala ez— emakumeen buruak etengabe hartzen ditu. Honek izen bat du: karga mentala, eta datu hauek asko esaten dute horri buruz.

## Zaintzak eragiten duen nekeak zaintza-lanean bertan eragiten du


### Gehiegizko karga fisikoa eta denbora falta dira oztopo nagusiak.

Zaintzaileen artean, nekea eta denbora falta izugarri handitzen dira, eta ez diete beren bizitzari bakarrik eragiten, baizik eta beren zaintzaile-rolan eragina duela sentitzen dute.

Zaintzaileen %60k diote neke fisiko edo emozionalak une batzuetan zaintzea eragozten diela.

### Zerk eragozten dizu une batzuetan zaintza-rola hartzea?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Erantzun anitzekoa)



Denbora falta litzateke bigarren faktore aipatuena zaintza une jakin batzuetan emateko gaitasuna eragozten duen aldagai gisa, inkestatutako zaintzaileen %55,8k adierazi dutenez.

Gehiegizko lana (%44,2) da zaintza-gaitasuna gehien mugatzen duen hirugarren faktorea, eta horrek nabarmentzen du lanbide-erantzukizunen eta zaintza-erantzukizunen arteko tentsioa eta lan-bizitza bateragarri egiteko politikak hobetzeko beharra.

Zaintzaileen %32k beren osasun arazoengatik mugak dituzte zaintzeko orduan, eta horrek berriro ere agerian uzten du beste pertsonak zaintzearen zereginak osasunean duen eragina, eta, zaintza kronikoago edo luzeagoko testuinguruetan, nekeak berak gaixotasunak garatzea ekar dezakeela.


Egoera ekonomikoa ere faktore mugatzaile posible gisa agertzen da, nahiz eta bigarren mailako moduan agertzen den, elkarrizketatutako zaintzaileen ia %18k adierazi dutenez.

## **Emakumeak nekatu egiten dira, gizonek gehiago delegatzen dutela dirudi.**

**Zaintza beren gain hartzeko oztopo gisa nekea elkarrizketatutako emakume zaintzaileen %62,5k jasaten du, gizonen % 32,6arekin alderatuta** —ia bikoitza—. Baina aurkikuntzarik deigarriena da emakumeek ez dutela oztopo bat aipatzen bakarrik; hainbat aipatzen dituzte aldi berean.

## Zerk eragozten dizu une batzuetan zaintza-rola hartzea?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Talde bakoitzaren ehunekoa - Erantzun anizkoitza)



Ezberdintasuna ez datza soilik oztopo edo eragozpen batzuk aipatzen diren intentsitatean, baizik eta zenbat aipatzen diren aldi berean, eta horietako batzuk, batez ere nekea, ia eksklusiboki emakumeen arazoa izaten jarraitzen dutela eta beste arazo mota batzuk garatzera eraman ditzaketela, hala nola haien osasun fisiko eta emozionalean duten eragina.

**Inkestatutako zaintzaileen erdiek baino gehiagok denborarik ez izatearen sentsazioa adierazten dute;** are gehiago emakumeentzat, zereginak bateratu eta konbinatu ahal izateko presio sozial eta emozionalaren adierazle argia litzateke.

## Zaintza-erantzukizunak handiagoak dira baliabide gutxiago dituzten etxeetan.

Nekeak ez du klasearen arabera bereizketarik egiten, baina klase baxukoek gehiago pairatzen dute eta denbora gutxiago dute saihesteko.

Ekonomikoki desabantaila gehien duten klaseek erakusten dituzte mailarik altuenak aztertutako dimentsio guztietan. Neke fisiko edo emozionalak klase baxuko zaintzaileen %67,1i eragiten die, klase altuagoetakoan artean %51ekin alderatuta; alde horrek ez du soilik zama handiagoa islatzen, baita hura kudeatzeko baliabide gutxiago ere.

Denbora faltak logika bera jarraitzen du, %57,3 klase baxuenen artean eta %53,4 goi-mailakoan artean, nahiz eta hemen aldea moderatuagoa den.

## Zerk eragozten dizu une batzuetan zaintza-rola hartzea?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Talde bakoitzaren ehunekoa - Erantzun anizkoitza) Gizarte klasearen arabera

Neke fisikoa edo emozionala	<b>%51,1</b>	<b>%57,8</b>	<b>%67,1</b>
Denbora falta.	<b>%53,4</b>	<b>%55</b>	<b>%57,3</b>
Lan gehiegi	<b>%38,6</b>	<b>%39,5</b>	<b>%41,8</b>
Osasun arazo pertsonalak	<b>%15,9</b>	<b>%28,9</b>	<b>%42,7</b>
Egoera ekonomikoa	<b>%3,4</b>	<b>%12,8</b>	<b>%28,6</b>
	ALTUA	ERDIKOA	BAXUA

Gizarte-klaseak alde nabarmenena eragiten dute zaintzaileen osasun-arazoeta. Klase sozioekonomiko baxuko zaintzaileen %42,7k oztopo gisa aipatzen dute, klase altuagoetakoen artean %15,9rekin alderatuta —ia hiru aldiz gehiago—. Osasun txarrean zaudenean zaintza ematea ez da aukera bat, eta **egoera prekarioetan zaintza-lanak egiteak zaintzaileen osasuna okertzen laguntzen duela dirudi.**

**Egoera ekonomikoak istorio bera kontatzen du,** baina are garbiago. Diru-sarrera gutxien dituztenen %28,6k oztopo zuzen gisa aipatzen dute egoera ekonomikoa arreta une jakin batzuetan emateko, talde aberatsenen %3,4rekin alderatuta.

Gehiegizko lan-gainkarga da klase-desberdintasunak txikiagoak diren faktore bakarra, profil aberatsenen %38,6k eta ekonomikoki prekarioenen %41,8k adierazten duten bezala, eta horrek iradokitzen du zaintzarako oztopo gisa lan-presioa egiturazkoa eta transbertsala dela.

Baina goi mailako klaseak lanetik nekatuta iristen diren bitartean, hori konpentsatzeko baliabide gehiago dituzte. Behe mailako klaseak, ordea, berdin nekatuta iristen dira, baina atsedean gutxiago ematen dien etxeko egoera batekin aurkitzen dira.

*Zaintzan desberdintasunak ez du konpromiso gutxiago islatzen, baizik eta egiturazko baldintza kaltegarriagoak: baliabide ekonomikoen eta laguntza-sareen faltak zaintza zama metatu bihurtzen du, eta horiek dituztenek banatu edo arindu dezakete.*

**Zaintza familian sostengatzen da: laguntza publikoa mugatua da oraindik**

---

## Familia, laguntza-sare nagusia.

Elkarrizketatutako zaintzaileen %77k familia baino ez dute laguntza gisa zaintza sostengatzeko, eurek, eta funtsean emakumeek, ezin dutenean hartu.

Inkestatutakoen %15ek dio ez dutela inor zaintza-lanetan laguntzeko, ezin dituztenean zaindu, bigarren egoera ohikoena bilakatuz.


Inkestatutako EAEko zaintzaile populazioaren %14k adierazi zuen baliabide sozial eta sanitario profesional batera edo erakunde edo zerbitzu publikoetara jo zezakeela, eta horrek erakusten du baliabide eta/edo informazio falta dagoela zerbitzu horiek eskatzeko eta eskuratzeko.

Inkestatutako zaintzaileen %11k zaintzaile bat kontratatzen dute zeregin horiek bere gain hartu ezin dituzten kasuetan.

Familia, lagunak eta sare informalak dira zaintzaileen %88ren laguntza nagusia, edozein baliabide publiko edo pribatu baino askoz gehiago. Zerbitzu publikoetarako sarbidea mugatua da, eta, hain zuzen ere, jende gehiagok dio inor ez duela norengana jo baliabide horiek eskuratzen dituztenak baino.

## Zein baliabide edo pertsonak sostengatzen dute zaintza zu ez zaudenean?

(Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645) (Erantzun anitzekoa)



Patroi honek familietan zentratutako zaintza eredu baten iraunkortasuna islatzen du, non erantzukizuna batez ere ingurune hurbilean dagoen eta erakundeen esku-hartzea bigarren mailako papera betetzen duen, eta non, ziurrenik, familiaren baliabide ekonomikoek alternatiba posibleetarako sarbidea baldintzatzen duten.

**Gizarte-klasea faktore larrigarri gisa: zaintzailearen profileko desberdintasun bikoitza**

## **Klase baxueneko pertsonak zaintza bakarrago eta kostu pertsonal handiagoarekin egiten dute.**

**Klase baxueneko zaintzaileen %24,5ek ez dute inor haien ordeztzeko ezin dutenean zeregin hori bete.**

Goi mailako klaseen artean, zifra hori %8,5era jaisten da, ia hiru aldiz txikiagoa. Ez da alde sotila; atsedean hartu ahal izatearen eta inoiz ezin izatearen arteko aldea da.


Zaintzaileek jasaten duten isolamendu honek, batez ere klase sozial baxu eta ertaineko testuinguruetan, metatzen den kostu fisiko eta emozionala dakar. Klase sozioekonomiko baxuko hamar zaintzailetik zazpi nekea aipatzen dute zaintzarako oztopo zuzen gisa. Klase sozioekonomiko altuagoetan, zifra hori hamarretik bost da.

Alde bera agertzen da ongizaterako mugetan, zaintzaileen %61,4 klase baxukoak dira eta %45,1 klase altuagoetakoak, eta aisialdirako mugetan, % 62 klase baxukoetan eta %56,1 klase altuagoetakoetan.

Ehunekoen segida hau ez da egitate bat soilik, patroia bat baizik: **klase baxukoek zaintza gehiago egiten dute, bakardade handiagoan zaintzen dute eta neurri handiagoan ordaintzen dute hori beste pertsonak baino beren gorputzarekin eta denborarekin.**


## Klase-arrakala - Laguntza-sarea eta eskaera

(Zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen oinarria 645) Goi mailako klasea vs. Behe mailako klasea



## Klase-arrakala - Zaintzaren eragin pertsonala

(Zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen oinarria 645) Goi mailako klasea vs. Behe mailako klasea



Gehiegizko karga horrek etorkizuneko dimentsio bat ere badu: **ekonomikoki zaugarrienak diren klaseetako zaintzaileen %68,5ek beren denbora hobeto orekatu nahi dute**, klase aberatsagoetako elkarrizketatuen %52,4rekin alderatuta.

Ez da kapritxo bat, zaintzak bere bizitzaren zati bat kontsumitzen duela sentitzen duen norbaiten adierazpena da, ezin diona zaintzeari utzi, baina mugagabeen ere eutsi ezin diona.

Emaitzarik deigarriena da familiaren laguntzak ere ez duela alde hori orekatzen. **Klase erdi-altuetan dauden pertsonen familien babesak %80,5ean**; zaugarritasun handiagoko testuinguruetan elkarrizketatutakoen arten, berriz, %66,8ra jeisten dira datuak.

Familiak zaintza sostengatu ezin duenean, zerbitzu publikoek edo pribatuek ere ez dute hutsune hori betetzen: klase baxuko pertsonen % 46,7k kezka du bere faltan nork zainduko duen; klase altuagoetakoek % 36,6rekin alderatuta, eta horrek erantzukizun gehiago eta horiek eskuordetzeko aukera gutxiago islatzen du.


Emaitza sistema bat da, non zaintzaren benetako kostua ez duten gehien dutenek ordaintzen, baizik eta gutxien ordaindu dezaketenek. Klase baxuetan zaintzea ez da soilik gogorragoa; egituraz ere bidegabeagoa da.

**Laguntzak zaintza esperientziaren intentsitatea zehazten du.**

Emaitzek aztertutako dimentsio guztietan desberdintasun sistematikoak erakusten dituzte laguntza-pertsonarik gabe zaintzen dutenen —hemen zaintzaile isolatu gisa aipatzen ditugunak— eta gutxienez laguntza-baliabide bat dutenen —familiakoa, profesionala edo erakundekoa— artean —hemen zaintzaile lagundu gisa aipatzen ditugunak—.

## Zein baliabide edo pertsonek ematen dute arreta zu ez zaudenean?

Zaintzaile isolatua vs. zaintzaile lagundua (Zainketa jarduera duten pertsonen oinarria 645)



Laguntza faltak eguneroko bizitzan gainkarga, kezka eta mugapen maila handiagoeekin lotzen da, eta horrek laguntza sareek zaintza esperientzian duten babes-eginkizuna azpimarratzen du.

**Estatistikarik nabarmenena zaintzaileak bere eginkizuna bete ezin duenean sentitzen den kezka da. Zaintzaile isolatuen % 57,3k antsietate konstante horrekin bizi dira, laguntza dutenen % 37,7rekin alderatuta.** 20 puntuko aldea honek huts egiten baduzu beste inor ez dagoela jakitearen zama islatzen duela dirudi.

Presio horrek nekea dakar: zaintzaile isolatuen % 74k zaintza ematen jarraitzeko oztopo zuzen gisa aipatzen dute, laguntza dutenen % 57,7rekin alderatuta. Eta kontrola berreskuratzeko behar larria dakar: laguntzarik ez dutenen % 75,0k beren denbora hobeto orekatu nahi dute, laguntza-sare bat dutenen artean baino ia 19 puntu gehiago.

Zaintzaile bakarria izateak eragin oso argi eta sistematikoa du eguneroko bizitzan ere. Aisialdia gehiago mugatzen du (% 64,6 vs. 54,1), eta ongizatea (% 64,6 vs. 49,2) eta hezkuntza (% 54,2 vs. 40,4). Aztertutako dimentsio guztietan, bakarrik zaintzen dutenak dira kaltenuenak. Salbuespenik gabe.

Agian alderdirik agerigarriena atsedenarekin eta denbora faltarekin gertatzen dena da: hemen aldeak murrizten dira, nahiz eta zaintzaile isolatuen profilen artean intzidentzia handiagoa erakusten jarraitzen duten laguntza dutenekin alderatuta, % 66,7tik % 60,1era eta % 62,5etik % 54,6ra, hurrenez hurren.

**Laguntza izateak ez du zama desagerrarazten, baina eramangarriagoa egiten du. Nolabaiteko laguntzarik gabe, zaintza irtetea oso zaila den tranpa batean bihurtzen da.**

5

## Genero desberdintasuna zaintza lanetan


**Gizarte-adostasun zabala: zaintza emakumeen lana da oraindik ere.**

### Zaintzan desberdintasuna guztiz aitortuta dago.

Txostenaren puntu honetan, berriro jartzen dugu arreta inkestatutako biztanleria osoak —zaintza-jardueraren bat egin ala ez— zaintzaren logikari buruz duen irudian.

Inkestatutakoen %86k dio emakumeek zaintza-lan askoz gehiago egiten dituztela, %1,7k bakarrik uste du berdintasuna dagoela eta % 1 eskas batek dio gizonak direla.

**Uste duzu emakumeek oraindik ere zaintza-lanekin lotutako neurri handiagoan egiten dutela gizonak baino?**  
(Oinaria. Lagina, guztia. 858)




### Denek ikusten dute, baina ez da ezer aldatzen.

Zaintzako desberdintasuna ez da praktikan bakarrik adierazten, baizik eta sozialki onartzen da familiaren eta gizartearen funtzionamenduaren errealitate estruktural gisa.

## Esperientziaren eta pertzepzioaren arteko aldea generoaren arabera.

Emakumeen % 99,3k badakite zaintza gehiago egiten dutela, eta gizonen % 77,6k baino ez dute hori aitortzen. Desberdintasuna hobeto ikusten da behealdetik. Desberdintasun honek esperientziaren eta pertzepzioaren arteko aldea adierazten du: zaintzaren zama zuzenean daramatenek argiago identifikatzen dute dagoen desberdintasuna.

## Uste duzu emakumeek zaintza-erantzukizun gehiago hartzen dituztela oraindik? Generoaren arabera




## Zaintza desorekatuaren eragina: kontziliazio zaila, desberdintasun iraunkorra

Inkestatutakoek zaintza-lanen banaketa desorekatuaren ondorio argiak identifikatu zituzten, eguneroko bizitzan eta gizarte-antolamenduan eragina izanik. Diagnostikoak egiturazko efektuak adierazten ditu berdintasunean, aukeretan eta gizarte-parte-hartzean .

### Zaintza-lanak oraindik ere familiek asumitzen dituzte neurri handi batean. Zer ondorio uste duzu dituela honek?

(Oinarria. Lagina, guztia. 858) (Erantzun anitzekoa)



